

Familia enpresaren erronkak

FAMILIA enpresa era askotara ulertzen da, berez, baina denak daude ados era horretako enpresak berebiziko eginkizuna duela Gipuzkoako ekonomian, horrelakoxea baita gure enpresa sarearen parterik handiena, eta produkzioaren alor guztietaraino dago, gainera, zabaldua. Arrazoizkoa da, beraz, enpresa mota honi arreta berezia eskaini eta zer egoeratan dagoen, zer mehatxu dituen eta aurrera egiteko zer tresna eskaintzen zaion aztertea.

Dauden estatistika datuak guztiz fidagarriak ez badira ere, %90 inguru jo daiteke direla familia enpresak Gipuzkoako enpresa sare osoan. Kopuru hori lanari dagokionean ere islatzen da, zeren langile guztien %60k era horretako enpresetan baitihardu lanean gaur egun. Negozio hauek duten presentzia zabala are gehiago aberasten da kanpoko merkatuetara iristeko erakutsi duen asmo sendoarekin; hain zuzen ere, talde honi baitagokio esportazio guztien %65.

Nazioarteko merkataritzan sartzeko, beste herrialde batzuetako eskonomian konkurrentzian sartzeko erakutsi duen kementa da, hain zuzen, enpresa horien etorkizunerako berme sendoenetako bat. Nazioarteko merkatuan sartzen ez den familia enpresa ez da ez haziko ez garaiarekin batera bilakatuko; horrexegatik, kanpoko merkatuetan presente egoten saiatu beharra dute, ahaleginean, enpresa hauek. Horretarako, ordea, produkzio eta prozesu teknologia on bat lortzeko gai behar dute izan, konkurrentziarik gogorrean ere beren jarduera aurrera ateratzeko gauza izan nahi badute.


Garbi ikusten da famili enpresak ondasunak eta enplegua sortu ez ezik, egonkortasun sozialerako ere languntza handia dakarrela, familia ingurunea sendotzen duelako, eta langileak beste enpresa batzuetara gehiegi mugitzeko joera apaltzen duelako.

Egoera ona da, beraz; baina, egoera horretatik abiatuta, badira enpresa hauek aurre egin behar dieten zenbait erronka, profesionalizazioari dagozkionak batez ere. Ez baita ahaztu behar, beste edozein enpresak dituen arazoez gainera, enpresa hauetan badirela beste arazo batzuk, beren izaeraz duten familia egiturak eragiten dituenak, eta horrexegatik konpontzen zailagoak izan daitezkeenak. bestelako enpresek ere badituzten

zenbait arazo, nazioarteko merkatuetan aritu beharra, adibidez, modu berezi batean bizi dituzte enpresa hauek, eta modu berezi batez aztertu behar dira horrenbestez.


Familia enpresak baditu bestelako arazo berezi batzuk ere, hala nola enpresaren emaitza kontua familiarenarekin nahasteko arriskua, aldakuntzak egin nahi eza, fiskalitatea, eta antolamendu egitura batez ere. Alde honetatik, bada, profesionalizazio premia larria du familia enpresak, aldakuntzetara aise egokitzen den antolamendu egitura abten premia. Enpresaren kudeaketa eta antolamendua, enpresaren garatzeko eta aurrera egiteko aukera emango dieten beste edozein enpresa motarentzat berdina diren enpresa irizpideetan oinarritzea da, hain zuzen, egin behar dena.

Gure gizarteak, beste edozein gizartek bezala, sorkuntza eta etorkizunerako ziurtasuna ekarriko duten erakundeak eta pertsonak behar ditu, eta familia enpresa giltzarrizko elementua da, ikuspegi horretatik begiratuta. Bermatu eta finkatu dezagun, bada.



Edita: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa
Pº Ramón Mª Lili, 6 20.002 - San Sebastián

Diseño, ilustración, infografía y maquetación: F.J. BIENZOBAS, Servicios Infográficos • 943 454 899



Retos de la empresa familiar

LA empresa familiar es un concepto con muchas acepciones, pero todas coinciden en admitir que tiene un papel clave en la economía guipuzcoana, dado que representa la mayor parte de nuestro tejido empresarial y, además, su ámbito de actuación se extiende a todos los sectores productivos. Justificado resulta, por tanto, prestarle una atención especial para analizar en qué situación se encuentra, cuáles son sus amenazas y cuáles sus herramientas para progresar.

Si bien no existen datos estadísticos totalmente fiables, se puede cifrar en un 90% el porcentaje que representan las empresas familiares en el conjunto de la actividad empresarial. Esta cifra tiene una respuesta parecida en el ámbito laboral,

dado que el 60% de los trabajadores están empleados en una empresa de esta tipología. La importante presencia de estos negocios se enriquece con su firme apuesta por alcanzar mercados exteriores, dado que este colectivo participa en un 65% del total de las exportaciones.

Su voluntad de internacionalización, de competir en economías de otros países, se convierte en una de las claves que asegura el futuro de estas firmas. La empresa familiar que no se internacionalice, no crecerá ni evolucionará, por lo que uno de los factores en los que deben centrar sus esfuerzos es la presencia en mercados exteriores. Para lograrlo, tienen que ser capaces de desarrollar una tecnología de producto y de proceso realmente buena, que les permita desarrollar su actividad en las condiciones más competitivas.

De todo ello se desprende que la empresa familiar crea riqueza y empleo, pero también aporta estabilidad social, al consolidar el ámbito familiar y minimizar la excesiva movilidad de la plantilla hacia otras empresas.

Partiendo de esta situación, que es buena, existe una serie de retos que deben afrontar y que están relacionados con su profesionalización. No hay que olvidar que, a los problemas propios de cualquier empresa, en su caso se añaden otros originados por la peculiar estructura familiar con la que trabajan, y que pueden complicar su resolución. Incluso algunos que son comunes a todo el tejido empresarial, como la internacionalización, la investigación y desarrollo o la fiscalidad, los viven de una manera específica que hay que abordar desde una perspectiva diferente.

Además, la empresa familiar presenta otras cuestiones propias como la amenaza de mezclar la cuenta de resultados de la firma con las cuentas de la familia, la resistencia al cambio, la fiscalidad y, especialmente, la estructura organizativa. En este sentido, la empresa familiar requiere con urgencia una profesionalización, con una estructura organizativa adaptada al cambio. Se trata, en definitiva, de comprender la necesidad de implantar criterios empresariales a su gestión y organización, similares a los de otro tipo de organizaciones, que les faciliten su desarrollo y progreso.

Nuestra sociedad, como todas, necesita organización y personas, que aporten una estabilidad creativa y proveedora de futuro, y en ese contexto la empresa familiar se antoja clave. Consolidémosla.

